

Atxikimendua ebaluatzeko tresnak

Sagrario Yárnoz Yaben
EHU, Psikologia Fakultatea, Donostia.

Lan honen helburua atxikimenduaren portaera eta bere alde errepresentatiboak ebaluatzen dituzten tresna klasiko eta berri batzuk aurkeztea da: instrumentuak nola sortu ziren, bere ebaluazio-helburua zein den, subjektuak nola eta zein irizpidez sailkatzen dituzten, eta zeintzuk diren instrumentu bakoitzarekin egin diren ikerketa nagusiak. Atxikimenduaren teoriaren oinarriko kontzeptu batzuk azaltzen dira, eta bukatzeko, teoria honen azken norabideak -atxikimenduaren balorea heldutasunean, atxikimendua eta psikopatologia etab.- aipatzen ditugu.

The aim of this work is to present some instruments used in the assessment of the attachment behavior and its representational aspects. How were they devised, which is their evaluation aim, which patterns of response are identified, how are the subjects classified using them, and what is the main research done with each instrument. The article summarizes the main formulations of the Attachment Theory and ends with some comments about the new directions of it -attachment relationships between adults, Attachment and Psychopathology- which highlight the importance of the methodological and evaluative aspects.

Sarrera

Harreman pertsonalek garrantzi handia dute gizakien dinamikan. Autore desberdinak psikologiaren historian zehar, puntu honetan ados ageri dira: beste gizakiekin harremanetan jartzean, batasuna, intimitatea eta plazerra lortzeko joerak indar handia du gizakiengan. Joera hau hiru oinarritzko –ikasigabeko– behar-multzotan agertzen da (López, 1993):

1: Baldintza gabeko eta iraunkor bezala hautematen diren lotura afektiboen eraikitzea: Atxikimendua.

2: Gizarte-harremanen sarea izateko beharra: lagunak, ezagunak, giza talde bateko partaide sentitu.

3: Plazerra ematen duten kontakto fisikoen beharra: Desioarekin lotuta dagoen sexualitatea, erakargarritasuna eta/edo maitemintzea.

Ikusmolde etologiko eta eboluzionista batetik, hiru behar-multzo hauek gainbizitza (superbibilitate) babesten dute, ez bakarrik gizakiarena, baita espeziearena ere.

Behar guzti hauetatik, atxikimendua da bizitzaren zikloan zehar indartsuen eta luzeen mantentzen dena. Garrantzi handia du zeren, esan dugun bezala, alde batetik gizakiaren eta espeziearen iraupena babesten baitu; bestetik, kontrol sistema bat delako, hots, momentuko beharretara portaera egokitzen duen tresna moduko zerbait, eta azkenik atxikimendua, subjektuak bere buruaz eta beretzat garrantzitsu diren pertsonen eraikitzen duen errepresentazio-sistema mentala oinarritzen duelako. Errepresentazio hauek (internal working models, edo barne-eredu eraginkor izena ematen direnak)

aldaketa gutxirekin mantentzen dira bizitzan zehar; erlazio interpertsonalak eta prozedura mental batzuek –aditutasuna, ezagutza soziala, oroimena– zuzentzen dituzte. (Bowlby, 1980; Bretherton, 1985).

Atxikimenduaren garrantzia

Atxikimenduaren teoriak (Attachment Theory) John Bowlby (1907-1991) eta Mary Ainsworth (1913) ditu oinarritzko zutabe.

Ainsworth-en iritsiz atxikimendua haurra eta bere amaren artean eraikitzen den afektuzko bilkura da (Ainsworth eta beste, 1978), eta irudi berezi batekin (ama edo bere ordekoarekin) gertutasun eta kontaktua lortzeko desio iraunkor batetik ondoriozten da. Ainsworth-ek, teoriatik aparte, ebaluazio eta ikuspegi metodologikoak landu zituen hasiera-hasieratik.

Bowlby psikiatra eta psikoanalista, ama-haurren arteko erlazioa ikertu zuen bere hasierako lanetatik. Ez zegoen oso ados betiko adierazpen psikoanalitikoarekin, zeinek defenditzen baitzuen haurrak zaindariei atxikitzen zitzaizkiela, haiek hauen oinarritzko beharrak (gosea bereziki) betetzen zituztelako. Harlow-en lanetan (1958) haurrak, amarengandik bereizten zituzten rhesus makakoekin, bat zetozen Bowlby-ren formulazioekin. Psikologia, portaeraren zientzietan, fisiologian, zibernetikan eta etiologian oinarria zuten apartazioak bilduz, Bowlby-k gorputz teoriko sendo bat eratu zuen. Berarentzat, atxikimendua irudi berezi batekin gertutasuna eta kontaktua mantentzeko joera da. Joera honetan testuinguruak eragina du: beharra handitu egiten da zenbait

unetan (subjektua beldurturik, nekaturik, gaixorik edo urduri sentitzen denean) eta gutxitu egiten da subjektua ongi edo seguru sentitzen denean, eta ingurua aztertu nahi duenean.

Beraz, atxikimendua portaera instintiboa da, baina egoerak eta atxikimendu-irudiarekiko bizi den historiak eragiten eta moldatzen dute denboran zehar. Portaera hau bizitzaren lehen urtean zehar sortzen da haur gehienetan, nahikoa tipiko den era batean bigarren urtean ikus dezakegu, bizitzaren hirugarren urtean oso markatuta jarraitzen du, eta gero, poliki-poliki, jaisten hasten da. Adolezentsian eta heldutasunean aldaketa batzuk gertatzen dira atxikimenduaren portaeran, zuzentzen zaion objektua ere barne dagoela, baina portaera, berez, bizirik mantentzen da subjektuaren bizitza guztian zehar.

Atxikimenduaren helburu orokorra segurtasuna lortzea da. Atxikimendu-irudiez erlazio onak, segurtasun-sentimendua, haren gertutasuna mantentzeko portaera batzuk, eta beharrezkoa izanez gero, bere disponibilitatea agertuko duela aldarrikatzen duen eredu mentala inplikatzeko du. Beraz, atxikimendua ebaluatzerakoan, hiru ikuspegi hauek ebaluatu beharko lirateke. Sentimenduen ebaluazioak arazo metodologiko handiak dituzenez gero, portaera eta errepresentazio mentalak ebaluatu izan ohi dira.

Atxikimendua ebaluatzeko tresnak

Strange Situation (Ainsworth eta Witting, 1969)

Atxikimenduaren barruan ebaluazio-prozedurarik ezagunena, erabiliena eta eztabaidagarriena, 20 minu-

tuko iraupena duen laborategiko egoera bat da, Arrotz Egoera izenez ezaguna dena.

Zortzi gertaeraz osaturik dago egoera hau. Haurra sartzen da bere amarekin –edo beste atxikimendu-irudiarekin– lehen ezagutzen ez zuten eta jostailuz beteta dagoen gela batean –laboratorioan–. Hasieran haurraren portaera bere amarekin dagoenean behatzen da –biak bakarrik eta arrotz baten aurrean–, gero ama joaten da eta haurraren portaera behatzen da –behin bakarrik eta beste behin arrotzarekin–. (Ikus laukia gertaeren deskribapenerako).

Laboratorioko egoera honetan, stress xume batean murgiltzen da haurra. Honi esker beha dezakegu haurrak nola antolatzen duen bere portaera atxikimendu-irudiarekiko, zein den irudi horrek ematen dion segurtasun-maila ingurua aztertzeko eta ezezagunekin harremanetan jartzeko, eta nola portatzen den haurra atxikimendu-irudiak alde egiten duenean eta itzultzen denean. Egoera honen arabera, haurrak hiru talde nagusietan banatzen dira:

B Taldea: edo atxikimendu segurua duten haurrak. Haur hauek ama erabiltzen dute segurtasun-oinarri bezala ingurua miazteko eta lasaitasun-iturri bezala bereizketaren ondoren.

Amak –edo ohizko zaintzaileak– segurtasunik ematen ez dionean inguru berria aztertzerakoan, eta lasaitasunik ere ez bereizketaren ondoren, haurraren atxikimendua segurtasun gabekoa edo atxikimendu herstua dela esaten da. Atxikimendu herstuaren bi eredu edo talde bereizten dira:

A taldea, edo atxikimendu iheslaria –avoidant– adierazten duten haurrak. Ingurua aztertzen dute atxikimendu-irudiarengan segurtasunik bilatu gabe. Bera gelatik ateratzen denean, lasai eta kezarik gabe gelditzen dira. Ama eta heldu ezezaguna berdin xamar tratatzen dute, eta bukatzeko, ama itzultzen denean, berarengandik ihes egiten dute.

C taldeko haurrak anbibalenteak –ambivalent– izenez ezagutzen dira. Azterketa pobrea adierazten dute, amaren joan-etorriaz kezkatuak. Amak alde egiten duenean erreakzio gogorra izaten dute; baina itzultzen denean gertutasun-bilaketa negar eta errefusarekin nahasten dute.

Main eta abarrek (1981) A, B, C, ereduaren barruan ezin sailka zitekeen talde txiki bat (%13) aurkitu zuten. Geroko lan batean, Main eta abarrek (1985) atxikimendu-eredu berri bat, D taldea, balidatu eta garatu zuten haur hauek Arrotz Egoeran agertzen zuten portaera deskribitzeko.

D taldeko haurrak atxikimendu desorganizatua edo desorientatua adierazten dute –disorganize/disoriented attachment–. Haur hauek portaera kontrajarriak batera adierazten dituzte –esate baterako, helduarengana inguratzen dira, baina burua beste aldera bueltatuta–, haien mugimenduek osatugabeak dirudite eta afektuen adierazpena gaizki bideratzen dute.

Atxikimenduaren segurtasunak oso erlazio herstua du gurasoen –edo atxikimendu-irudien– jarrerekin, eta bereziki irudi horren eskuragarritasunarekin: B ereduako haurren gurasoak eskuragarriak dira haurrak behar dituztenean. A ereduako haurren

gurasoak hotzak dira eta urrutitik tratatzen dituzte, eta C ereduako haurren gurasoak inkontsistentek dira.

Haur eta gurasoen arteko erlazioa ez da hutsean ematen, eta badira faktore batzuk harreman horiek –eta beraz, atxikimenduaren segurtasun-maila– baldintzatzen dituztenak: kultura desberdineko hazkuntza-ohiturak eta familiaren inguruko giroa. Honi buruz ikerketa asko egin da Arrotz Egoera erabiliz, eta ez bakarrik laboratoriorik, baizik eta egoera naturaletan ere (Pierre-Humbert, 1992).

Arrotz Egoerak jaso duen kritikarik gogorrena Arrotz Egoerak haurrak hazteko organizazio kulturalak isladatzen dituela, eta ez bakarrik atxikimenduaren segurtasuna, egoztekoa izan da. Camposen ustez (1983) “atxikimenduaren segurtasuna” eta “arrotz egoeraren sailkapena” berdintzea ez litzateke beti egokia izango. Bere ustez, B motako sailkapenak adieraz dezake ala ez atxikimendu segurua, eta A eta C tipoko sailkapenak islada dezakete, ala ez, seguru ez den atxikimendua.

Hainbat herritan egindako ikerketa konparatiboek posibilitate hau babesten dute: Grossman eta bestek (1985) aurkitu zuten Alemanian A taldean sailkatutako haur proportzio handi bat, guraso alemanen haur-independentzia bultzatzeko joerarekin elkarturik. Sagi eta bestek (1985), Sagi-k (1990), Miyake eta bestek (1985) eta Takahashi-k (1990) aurkitu zuten Japonian eta Israelgo kibbutzetan C taldean sailkatutako zegoen haur-proportzio handi bat. Autoreek ez dute uste gertaera honek atxikimendu anbibalente edo iheskorra adierazten duenik,

baizik eta haurrak hazteko ohiturak herri bakoitzaren testuinguru kulturalen barruan kokatzen direla, eta haur

hauentzat kanpotarrak agertzea Amerikako hauentzat baino stress-eragile handiagoa dela.

ARROTZ EGOERA

Egileak: Ainsworth eta Witting, 1969.

Instrumentua: Strange Stituation –Arrotz Egoera.

Metodoa: Laboratorioko behaketa.

Ebaluazio-modua: Haur-portaeraren kategorizazioak.

Emaitzak: Seguruak (B taldea)
 Segurtasun gabeko iheslariak (A taldea)
 Segurtasun gabeko anibalenteak (C taldea)
 Desbideratuak/Desantolatuak (D taldea) (Main e.a. 1985)

Instrumentuarekin egindako ikerketak:

Atxikimenduari buruzko ikerketa kultura desberdinetan:
Uganda-Baltimore (Ainsworth, 1978).
Alemania (Grossman e.a., 1985)
Japonian (Miyake et al, 1985; Takahashi, 1990)
Suedian (Lamb e.a. 1982)
Holanda (Van IJendoorn e.a. 1983)

Atxikimenduari buruzko ikerketa transkulturalak:

Meta-analisi transkulturala (Van IJendoorn, 1988)
Konparazioa anglo eta puertorrikarren atxikimendu-baloreen artean (Harwood, 1992)

Atxikimenduaren segurtasuna irudi desberdinekiko (Aita, ama, besteekiko):

Ama-aitaren arteko konparaketa (Bridges, Conell eta Belsky, 1988; Chase-Lansdale eta Owen, 1987; Belsky, Garduque eta Hrcir, 1984; Main eta Weston, 1981; Lamb, 1977)
Famili egoeraren eragina haurren atxikimendu-segurtasunean:
Amaren depresioa (Radke-Yarrow e.a. 1985)
Tratu txarrak (Main eta Weston, 1982; Lyons-Ruth e.a. 1987; Carlson e.a. 1989)
Amaren lana (Owen, Easterbrooks, Chase-Lansdale eta Goldberg, 1984; Chase-Lansdale eta Owen, 1987; Belsky eta Rovine, 1988)

Ainsworth, Blehar, Waters eta Wall-en Interakzio-Eskalak (1978)

Eskala hauek interaktiboak deitzen dira zeren kontutan hartzen baitute ez bakarrik haurraren portaera, baizik eta bere partaidea den helduarena ere. Egoera Arrotzaren episodio bakoitza kodifikatzeko pentsaturik daude, baina esan behar dugu oso ikerketa gutxitan erabili direla biak.

Ainsworth eta bestek (1978) ematen dute eskala hauen deskribapen zehatz bat. 1-7 puntu bitarteko eskala batean markatzen da portaera bakoitza, intentsitateari begira. Gertaera bakoitzean eskala hauek deskribatzen dute haurraren portaera atxikimendu-irudiarekiko edo arrotzarekiko, eta baita hauen portaera haurrarekiko ere. Adibide gisa, ikus laukian lehen eskalaren deskribapena. Gehiegi ez luzatzeagatik, 1-3-5-7 puntuei dagozkien deskribapenak agertuko ditugu.

Eskalan behatzen diren portaerak hauexek dira:

1. Gertutasun eta kontaktuaren bila (haurraren ahaleginak helduarekin kontaktoan jartzeko).

2. Kontaktuari mantentzea (haurraren ahaleginak helduarekin kontaktoan jarraitzeko).

3. Kontaktoarekiko erresistentzia: honen bidez ikusten dugu haurraren erresistentzia maila kontaktoan ez jartzeko heldua bereganatzeko zailtasunak, edo bereganatzearen adierazten duenenean (adibidez, atzera bota helduak hartu nahi duenean, mutu geratu, haserratu, helduak emandako jostailuak bota...).

4. Ebitazioa: Aldagai hau helduaren gertutasuna edo interakzioa oztopatzearen helburua duen haurraren portaerari dagokio (bizkarra eman helduari, ez begiratu...).

5. Urrutiko interakzioa: Eskala honek neurtzen du haurrak helduarengana adierazten duen interesa, haien arteko ukitze fisikorik gabe (irriparra, begirada...).

6. Desagertu den pertsonaren bilaketa deskribatzen da eskala honetan (heldua jarraitu ateraino, atea iriki nahi...).

INTERAKZIO ESKALAK

1. Gertutasun eta kontaktuaren bila

Aldagai honen bidez pertsona baten gertutasuna irabazteko edo berreskuratzeko haurraren ahaleginen intentsitatea eta iraunkortasuna ebaluatzen da. Puntuazio altuenak haurrak bere kabuz kontaktua lortzen duenean ematen dira. Gogoratu eskala hauetako puntuazioetan haurraren eta helduaren jarrerak kontutan hartzen direla.

7. Ahalegin oso markatuak kontaktu fisikoa lortzeko (adibidez, haurra helduarengana inguratzen da eta bere kabuz kontaktua lortzen du).

5. Ahalegin nahikoa markatuak kontaktu fisikoa lortzeko (adibidez, haurra inguratzen da, baina kontaktu-eskakizun bat adierazi gabe helduak besoetan hartzen du)

3. Kontaktua fisikoa lortzeko ahalegin eskasa, edo ahalegin moderatua helduaren gertutasuna lortzeko (adibidez, haurra inguratzen da baina ez du eskatzen, eta helduak ez du hartzen).

1. Inongo ahaleginik kontaktu fisikoa edo gertutasuna lortzeko.

Eskala hauen alde dauden autoreen galdera da ia eskalak erabiltzeak ez ote zuen lortuko haurren beste sailkapen bat, eta ez ezagutzen ditugun hiru taldeak (A, B eta C), zeren, beren ustez, Arrotz Egoeran ez baitira kontutan hartzen haurren portaera batzuk baizik A,B,C kategorizazioa egiteko. Adibidez, Gardner, Lamb, Thompson eta Sagi (1986) haurren elkarrekintza-modua irizpide bezala harturik, haurrak bi taldetan sailkatzea proposatzen dute: proximalak ala distalak. Belsky eta Rovinek ere bi kategoriatan banatu dituzte haurrak, irizpide berdintsuak jarraituz.

Waters eta Deaneren Q-Sort Metodoa (1984)

Q-Sort Metodoa Stephenson-ek eratu zuen 1953. urtean, eta oso erabilia izan da nortasun-ebaluazioan eta garapen psikologiaren ikerkuntzan.

Q metodologiak hiru osagai ditu: lehenbizikoan, interesatzen zaigun gaiari buruz item deskribatzaile batzuk eratzen dira. Bigarrenean, item hauek puntuatu egiten dira subjektuaren barruan duten tipizitatea edo garrantzia ikusirik, eta hirugarrenean, prozedura desberdinak erabil daitezke datuak aztertzeke (Kluster analisiak, e.a.).

“The Attachment Q-Set” lau etapatan eratu zen. Lehenengo etapian atxikimenduari dagokion bibliografia –lan teoriko eta enpirikoak– jorratu, berrikusi zen, eta hortik garatu zen atxikimenduaren barruan garrantzi handiko zen konstrukto-, portaera- eta testuinguru-zerrenda bat. Honen barruan segurtasuna, dependentzia, desatxikimendua, self-eragimena, objektu-norabideko zenbait ikuspegi,

komunikazio-trebetasunak, umorea, subjektuaren erantzuna fisikoki konfortatua zenean, beldurra, haserrea eta konfidantza aurkitu ziren.

Bigarren etapian, haurren etxeetara joanez eta testuinguru naturalean beren portaera behatuz, aurreko item-multzoa erabili zen haurren portaera deskribatzeko. Portaera batzuk eliminatu, edo errebisatu egin ziren –sekula gertatzen ez zirenak, edo epaileen arteko akordio txikiak jaso zituztenak–, eta beste batzuk aldatu egin ziren –esate baterako, kasu batzuetan item bakarra zena bi edo hiru itemetan banatu zen, maila teorikoan garrantzi handiko ziren bi edo hiru konstruktoen artean bereizketak egin ahal izateko–.

Hirugarren etapian, autoreek item guztiak eta beren kontrakoak kategoriatan banatu zituzten eta orduan item bera edo bere kontrakoa eliminatuak izan ziren, kategoria bakoitzaren barruan deseabilitate soziala orekatzeko.

Laugarren eta azken etapian, gurasoak item-multzoarekin trebatu egin ziren, eta horren bidez haurren portaera deskribatu egin zuten. Beste bi behatzailek subjektu bakoitza hiruzpalau orduz bisitatu egin zuten, etxean eta bi aldiz. Item-multzo bera erabiltzen zuten haurren portaera deskribatzeko. Behatzaileen arteko akordio eskasa lortu zuten itemak kendu egin ziren. Beste item batzuk eliminatu ziren, amek ulertzen ez zituzten termino teknikoak zirelako.

Prozedura hau jarraituz lortu zen 100 item duen bertsioa. Item bakoitzak izenburu bat eta definizio bat du. Definizioa portaera bereziei edo testuinguru garrantzitsuei dagokie.

Zenbait kasutan, kontrakoaren definizioa ere ematen da. Itemen mamia zortzi arlotara zabaltzen da: atxikimendu-azterketaren arteko oreka, lasaitzeari erantzuna, afektua, interakzio soziala, pertzepzio soziala, gauzen erabilpena, dependentzia eta tolerantzia.

Behatzaile bakoitzak subjektua deskribatzen du Q-Sorteko 100 itemak bederatzi multzotan banatuz, tipizitateari dagokionez. Multzo bakoitzean kokatutako itemek banaketa estandarra jarraitzen dute (5,8,12,

16,18,16,12,8,5), eta puntuazio bat ematen zaie (+4-4en arteko baloreak).

“Attachment Q-Set” delakoak bere balorea erakutsi du afektu, kognizio eta portaeraren arteko erlazioak aztertzeko atxikimenduari dagokionez. Metodo honek posible egiten du atxikimenduaren ebaluazioa etologi/kontrol sistemen ikusmoldetik. Eta azkenik, gurasoak datu emaile bezala erabiltzeak, distortsioa gutxitzen du, ikerketak “merketu” egiten ditu, eta bide batez, lagin handiagoekin lan egiteko posibilitatea eskaintzen du.

ATXIKIMENDUA EBALUATZEKO Q METODOA

Egileak: Waters eta Deane (1984).

Instrumentua: Attachment Q-set.

Adina: 12-36 hilabeteko haurrentzat.

Ebaluatzen du: atxikimendua, azterketa eta haien inguruko portaerak etxean eta beste egoera naturaletan.

Nork erabili: Ikertzaileak edo haurra ezagutzen dutenek (ama/aita, e.a.ek).

Egitura: 100 item (atxikimendu inguruko portaera esanguratsuak).

Ebaluazio-modua: Behatzaileak portaera deskribatzen duten itemak banatzen ditu tipizitateari dagokionez.

Emaitzak: Informazioa lortzen da ikuspegi hauei buruz:

- segurtasun-basearen erabilpena.
- erantzun afektiboak.
- erreferentzia soziala.
- ezagutza sozialaren beste ikuspegiak.

Instrumentuarekin egindako ikerketak:

Segurtasuna eta inguruko kontzeptuak, Deane eta Waters, (1984).

Amaren lana, haurtzaintza eta atxikimendua. Vaughn, Deane eta Waters, (1985).

Pobrezian bizi diren ama-haur bikoteen elkarrekintza Txilen (Valenzuela eta Lara, 1987, Main, 1990n aipatua).

Atxikimendua eta Errepresentazioa. Barne-eredu Eraginkorrek Ebalua- tzeko Tresnak

Esan bezala, atxikimendua inposatzen du atxikimendu-irudiekin izandako erlazioaren eredu erai-
kitzea. Eredu mental hauen eduki
garrantzitsuenak erlazioaren oroi-
menak, subjektuak atxikimendu-
-irudiez eta bere buruaz duen ideia,
eta azkenik, erlazioarekiko itxaropenak
dira (López, 1993).

Barne-ereduak ez du aita edo
amaren irudi objektiboa aurkezten,
baizik eta subjektuak nola bizi eta
interpretatu egin duen ama/aitarekin
izandako erlazioaren historia. Barne-
-eredu mentalak bizitzan oso goiz
osatu dira; norberaren eta besteen
ezagutza lortzen da erlazioa osatu
dituzten gertakizun zehatzetan (Bre-
therton, 1985; Main eta beste, 1985).
Eredu hauek dinamikoak dira, baina
behin eratu eta gero, egonkortzeko
joera dute, eta berarekin ados etortzen
ez diren interpretazioak edo datuak
baztertu edo berrelaboratu egiten ditu
(Bowlby, 1980).

Dena dela, operazio formalen
aroaren ondoren, posible da lehenago
izandako erlazioen ereduak aldatzea,
subjektuak pentsamendu berataz
pentsatzeko lortu berri duen
ahalmenari esker. Beraz, subjektua
orain gauza da emandako erlazio-
-sistema batetik kanpo kokatzeko, eta
modu abstraktuan sistema hori
aztertzeko.

Gaiaren garrantzia ikusirik, ebalua-
zio-tresnak eratu ziren eredu hauek
neurtzeko. Hona hemen garran-
tzitsuenak:

Adult Attachment Interview (George, Kaplan eta Main, 1985):

Helduek oroitzapen zehatzak
guraso eta hauraren erlazioaren
ulermen orokorraren barruan nola
integratu zituzten ebaluatzeko eratu
zen elkarrizketa hau. Subjektuei
bere gurasoekin izandako erlazioak
deskribatzeko, erlazio hauek
denboraren eraginez jasan dituzten
aldaketak, eta oraingo helduen
nortasunarengan duten eragina
deskribatzeko eskatu zaie.
Gurasoen erantzunkizun zehatz
oroitzapenak ere eskatu zaizkie:
nola erantzuten zuten nahigabetuak
zirenean, gaixorik zeudenean edo
ezbeharren bat zutenean. Hasierako
ikerketan, 6 urte lehenago Arrotz
Egoeran ebaluatutako izan ziren haurren
gurasoak ziren subjektuak (Main eta
Goldwyn, 1985).

Transkribapenen bidez, hiru
antolamendu-eredu nagusi azaldu
ziren: Seguru bezala sailkatu izan
ziren haurren gurasoak atxiki-
menduari balioa ematen zioten eta
atxikimenduaren inguruko gertaerak
eraginkortzat hartzen zituzten. Bestal-
de, aske eta objektibo xamarak ziren
gertaera edota erlazio zehatz bat
ebaluatzerakoan. Lasai sentitzen ziren
atxikimendu-gertaerak gogoratze-
rakoan, eta oroitzapenak, orohar,
baikorrek ziren. Gertaera ezezkor bat
bururatzerakoan, subjektuak gauza
ziren erlazioaren gainbegirada orokor
batean, bere alde positibo eta
negatiboak barruan zeudela, inte-
gratzeko. Mainek eta Goldwynek
eredu honi *Segurua edo Atxikimendua
Ebaluatzeko Askea* deitu zioten.

Iheslari –avoidant– bezala
sailkatuak izan ziren haurren gurasoak
beste eredu koherente bat erakutsi
zuten. Autoreek *atxikimenduaren*

garrantzi-kentzaileak –dismissing of attachment– deitu zioten. Atxikimendu-erlazioei garrantzia kentzeko joera zuten, eta maiz zailtasunak izaten zituzten atxikimendu-gertaera zehatzak gogoratzeko, edota beren balorea mespreziatzen zuten gaur egungo ihardueran. Gertaera zehatzez gogoratzen zirenean, errefusa eta maitasun-falta agertzen zuten gehienetan, maiz elkarrizketan emandako gurasoen gainbegirada positibo baten kontra.

Anbibalente –ambivalent– bezala sailkatu ziren haurren gurasoak *Kez-*

katuak bezala tipifikatu zituzten autotoreek. Honekin azaldu nahi zuten atxikimenduaren inguruko jarreretan nolabait “saretuak” sentitzen zirela. Nahiz eta talde honetako partaideak maiz gogoratu haurtzaroko gertaerak, arazoak izaten zituzten esperientzia hauek eredu koherente batean integrazteko, eta nahasi xamar agertzen ziren gurasoekiko erlazioaren ikuspegi negatiboek, oraindik ere gurasoen gustukoak izateko ahaleginak egiten zituztelarik.

HELDUEN ATXIKIMENDU-ELKARRIZKETA

Egileak: Main, Kaplan eta Cassidy (1985).

Instrumentua: Adultu Attachment Interview (Helduen atxikimendu-elkarrizketa).

Egitura: egituratua, bukaera irekia.

Ebaluazio-modua: Elkarrizketak bere osotasunean ematen dituen datuen azterketa.

Emaitzak: Segurua edo Atxekimendua Ebaluatzeko Askea. Atxikimenduaren garrantzi-kentzaileak. Kezkatuak.

Egokitzapenak: Maila kontzeptualean: Ainsworth-en haur-ereduak: seguru, anbibalente, iheslari.

Empirikoki: Haurren ereduak gurasoen erduekin.

Beste ikerketak: Jaioaurreko elkarrizketak (Fonagy, Steele eta 1991) (Ward et al, 1990). Barne-ereduak adoleszentzian, (Kobak eta Sceery, 1988). Erreakzio psikofisiologikoak atxikimendu-elkarrizketan. (Dozier eta Kobak, 1992).

Gurasoen Atxikimendu- -elkarrizketa (Bretherton eta beste, 1989)

Bretherton, Biringen, Ridgeway, Maslin eta Sherman-ek (1989) eratu zuten "The Parental Attachment Interview" –Gurasoen Atxikimendu-
-elkarrizketa–, Main-en aurkikuntzak –atxikimenduaren segurtasunaren belaunaldien bidezko transmisioa, bereziki– eta bere elkarrizketa oinarritzat harturik. Elkarrizketa sakona, egituratua baina bukatugabea zen. Emandunak bi eratan zuzendu ziren: lehenbiziko eran, erantzunak aztertu ziren ama eta haurren atxikimendu-
-erlazioaren koalitatibotasunaren desberdintasunak ikusteko. Eta bigarrenik, amaren sentsibilitate/insight eskala bat (Biringen eta Bretherton, 1988, Bretherton eta besteetan, 1989n, aipatua) erabili zuten elkarrizketa osoan aplikatzeko.

Eskala hau Ainsworth-en eta Main-en ekarpenetan oinarritzen da: Ainsworth-en ustez, amaren sentsiberatasuna haurren seinaleekiko atxikimendu seguruarekin erlazioaturik dago (Ainsworth eta beste, 1978). Main eta besteekin ikerketan, (1985) haur seguruen amak gauza ziren atxikimenduaren inguruko gaiez era ireki eta koherentean hitz egiteko.

Ondorioak

Atxikimenduaren teoriari buruz egin dugun errebisioaren arabera, atxikimendu-sistemaren barruan hiru osagai bereizten dira: atxikimendu irudiaren gertutasuna mantentzea/ lortzea helburua duten portaerak, atxikimendu-irudiari buruz egindako barne eredia, eta atxikimenduaren inguruko sentimentuak.

GURASOEN ATXIKIMENDU-ELKARRIZKETA

Egileak: Bretherton, Ridgeway, 1986; Bretherton et al. 1989.

Instrumentua: Parent Attachment Interview - Gurasoen Atxikimendu-
-elkarrizketa.

Egitura: Elkarrizketa sakona, egituratua, bukaera irekia.

Ebaluazio-modua: A) Edukien analisisa. Amaren jarrera atxikimendu-
-portaerekiko.
- ama eta haurren arteko afektuaren komunikazioa.
- ama eta haurren arteko banakuntza.
- autonomi negoziazioak.

B) Azterketa orokorra. Amaren sentsibilitatea/insight haurrekiko.

Koerlazioa haurren beste atxikimendu neurriekin:

Strange Situation kalifikazioa (18 hilabetetan).

Waters eta Deane Q Sort (25 hilabetetan).

Bereizketa-Bilera Prozedura (37 hilabete).

Atxikimenduaren Historiaren Osatze-Lana (37 hilabete).

Ebaluatzerakoan, haurren atxikimendu-portaerak, laboratorioan edo beste egoeretan behatzen dira haurrak urtebete inguru duen momentutik. Kultura desberdinetan garrantzia duten baloreek eta haurrak hazteko ohiturek eragina dute, dirudienez, Arrotz Egoeran lortutako emaitzetan, beraz ebaluatzeko tresna honekin balidezia ekologikoa lortzeko guztiz beharrezkoa da ebaluazio-tresna hau egokitzea kultura desberdinen ohitura, helburu eta antolaketa-moduetara. Zentzu honetan lan handia egiten ari da (Hinde, 1991; Sagi, 1990; Van IJzendoorn eta Kroonenberg, 1988; Main, 1990).

Atxikimenduaren barneko edo errepresentaziozko ikuspegiaren azterketa izugarri aberastu du ikerketa-arlo hau. Alde batetik, belaunaldien arteko atxikimendu-ereduen transmisioa aztertzea posible egin duelako (Bowlby-ren interesgune bat psikiatralanean hasi zenez geroztik). Lehen ikusi dugun bezala, Helduen Atxikimendu-elkarrizketan lortutako sailkapena egokitu egiten zitzaizen Ainsworthek haurrengan aurkitu zituen tipoei maila kontzeptualean. Baina ez hori bakarrik: "garrantzi-kentzaileak" ziren gurasoak, esaterako, haur "ebitanteak" izaten zituzten. Aurkikuntza hauek egiaztatu egin ziren jaio aurretik egindako elkarrizketetan (Fonagy eta abarrek, 1991).

Eta bestetik, egiaztatu egin duelako atxikimenduaren garrantzia bizi guztian zehar, eta ez haurtzaroan bakarrik. Atxikimendu-erlazioak helduen artean 70.eko hamarkadan aztertzen hasi ziren eta helduen erreakzioak galera afektibo garrantzitsuen aurrean zuten aztergai (Parkes, 1972; Weiss, 1977, ezkon-tzausteari buruz).

Gaur egun, erlazio interpertsonalen gaia atxikimendu-ikusmoldetik aztertzen duten autoreak asko dira. Hazan eta Shaver-ek (1987) Ainsworth-en haurrengan atxikimendu-ereduak helduen eredutara "itzuli" egin zituzten, eta hauxe aurkitu zuten: proportzio handi batean amodio-erlazioei begira bere burua seguru, iheslari edo ambibalente bezala deskribatzen duten helduak, berdin sailkatzen zirela gurasoekiko (Euskal Herrian egindako ikerketa batek emaitza berdinak lortu ditu, ikus Yáñez 1992). Beste ikerketa batzuk egin dira atxikimendu-segurtasuna ezkontzaren barruan neurtzeko asmoz, txikitako ereduarekin erlazioan gabe, baizik eta bikotearen dinamikaren arabera (Shaver eta Hazan, 1988; Kobak eta Hazan, 1991 ; Weiss, 1991).

Erlazio pertsonaletik aparte, beste gai batzuk jorratzen dira atxikimenduaren argipean. Atxikimendu-ereduak eta heriotzaren aurreko beldurra (Mikulincer, Florian eta Tolmacz, 1990;), Psikopatologia -tratu txarrak (Cicchetti eta Barnett, 1991), interbentzioa sare sozial eskasa duten familietan (Lieberman eta Pawl, 1988), arazodun haurrak dituzten familietan (Greenberg eta Speltz, 1988), eta abarretan. Atxikimenduaren Teoriak osasun ona du gaur egun, eta honek metodologia eta ebaluazio aldetik ekarpen berriak eskatzen ditu. Mary Ainsworth-en Arrotz Egoera eta Mary Main-en Helduen Atxikimendu-elkarrizketa funtsezko tresnak izan dira atxikimenduaren ebaluazioan, eta zalantzarik gabe, beste batzuk jorratuko duten bidea ireki dute.

Bibliografia

- Ainsworth, M.D.S. et al. Witting, B., (1969): "Attachment and exploratory behavior of one-year-olds in strange situation", In B. Foss (Ed) *Determinants of infant behavior* vol 4, Wiley & sons, New York.
- Ainsworth, M.D.S., Blehar, M., Waters, E.; Wall, S., (1978): *Patterns of Attachment*, Erlbaum, Hillsdale, N.J.
- Belsky, J. et al. (1984): "The Pennsylvania infant and family development projects". I, II et al. III. *Child Development* 55, 692-728.
- Belsky, J. et al. Rovine, M., (1988): "Nonmaternal care in the first year of life and the security of infant-parent attachment" *Child Development* 59, 157-167.
- Bowlby, J., (1982): *Attachment and Loss*, Vol I, II et al. III. Basic Books, New York.
- Bretherton, I., Biringen, Z., Ridgeway, D., Maslin, C., Sherman, M., (1989): "Attachment: The parental perspective." *Infant Mental Health Journal* 10, 203-221.
- Bretherton, I., (1985): "Attachment Theory: Retrospect and Prospect." In I. Bretherton et al. E. Waters (eds) *Growing Points of Attachment :Theory and Research*, Monographs of the Society for Research in Child Development 50, (1-2 serial n° 209), Chicago.
- Bretherton, I., (1992): "The origins of Attachment Theory: John Bowlby and Mary Ainsworth." *Developmental Psychology* 28, 759-775.
- Bridges, L., Connell, J., Belsky, J., (1988): "Similarities and differences in infant-mother and infant-father interaction in the Strange Situation: A Component process analysis." *Developmental Psychology* 1, 92-100.
- Campos, J.J., Barret, K., Lamb, M.; Goldsmith, H., Stenberg, C., (1983): "Socioemotional Development." In P.H. Mussen (ed) *Handbook of Child Psychology*. Wiley & sons. New York.
- Carlson, V., Barnett, D., Cicchetti, D., Braunwald, K., (1989): "Disorganized/Disoriented attachment relationships in maltreated infants". *Developmental Psychology* 25, 525-531.
- Cicchetti, D. et al. Barnett, D., (1991): "Attachment organization in maltreated preschoolers." *Development and Psychopathology* 3, 397-411.
- Chase-Lansdale, P.L. et al. Owen, M., (1987): "Maternal employment in a family context: effects on infant-mother and infant-father attachments." *Child Development* 58, 1505-1512.
- Dozer, M. & Kobak, R., (1992): "Psychophysiology in attachment interviews: converging evidence for deactivating strategies." *Child Development* 63, 1473-1480.
- Fonagy, P.; Steele, H., (1991): "Intergenerational patterns of attachment: Maternal representations during pregnancy and subsequent infant-mother attachment." *Child Development* 62, 891-905.
- Gardner W., Lamb, M.E., Thompson, R.A., Sagi, A., (1986): "On individual differences in strange situation behavior." *Infant Behavior and Development* 9, 355-375.
- Greenberg, M.T. et al. Marvin, R.S., (1988): "Attachment and the ontogeny of conduct problems." In J. Belsky et al. T. Nezworski (eds) *Clinical applications of attachment*. Erlbaum, N.J. Hillsdale.
- Grossman, K., Grossman, K.E., Spangler, G., Suess, G., Unzuer, L., (1985): "Maternal sensitivity and newborns: orientations responses as related to quality of attachment in Northern Germany." In I. Bretherton et al. E. Waters (eds) *Growing Points of Attachment :Theory and Research*, Monographs of the Society for Research in Child Development 50, (1-2 serial n° 209), Chicago.
- Harwood, R., (1992): "The influence of culturally derived values on Anglo and Puerto Rican mothers' perceptions of attachment behavior." *Child Development* 63, 822-839.

- Hazan, C. eta Shaver, P., (1987): "Romantic love conceptualized as an attachment process." *Journal of Personality and Social Psychology* 52, 511-524.
- Hinde, R.A., (1991): "Relationships, attachment and culture: A tribute to John Bowlby", *Infant Mental Health Journal* 12, 154-163.
- Kobak, R. & Sceery, A. (1988): "Attachment in late adolescence: Working Models, affect regulation and representations of self and others". *Child Development* 59, 135-146.
- Kobak, R. eta Hazan, C., (1991): "Attachment in marriage: Effects of security and accuracy of working models." *Journal of Personality and Social Psychology* 60, 861-869.
- Lamb, M.E., (1977): "Father-infant and mother-infant interaction in the first year of life." *Child Development* 48, 167-181.
- Lamb, M., Hwang, C.P., Frodi, A.M., Frodi, M., (1982): "Security of mother-and-father-infant attachment and its relation to sociability with strangers in traditional and non-traditional Swedish families." *Infant Behavior & Development* 5, 355-367.
- Lieberman, A.F. eta Pawl, J.H., (1988): "Clinical applications of attachment theory." In J. Belsky eta T. Nezworski (eds) *Clinical applications of attachment*. Erlbaum, N.J. Hillsdale.
- Lopez, F., (1993): "Las relaciones afectivas a lo largo del ciclo vital." In M.J. Ortiz y S. Yáñez (eds) *La Teoría del Apego y las Relaciones Afectivas*. Servicio de Publicaciones de la UPV/EHU.
- Lyons-Ruth, K. eta ab. (1987): "Infants at social risk: Relationships among infant maltreatment, maternal behavior and infant attachment behavior." *Developmental Psychology* 23, 223-232.
- Main, M., (1990): "Cross-Cultural studies of Attachment organization." *Human Development* 33, 48-61.
- Main, M. eta Weston, D.R., (1981): "Quality of attachment to mother and to father related to conflict behaviour and the readiness for establishing new relationships." *Child Development* 52, 932-940.
- Main, M., Kaplan, N., Cassidy, J., (1985): "Security in infancy, childhood and adulthood." In I. Bretherton eta E. Waters (eds) *Growing Points of Attachment :Theory and Research*, Monographs of the Society for Research in Child Development 50, (1-2 serial nº 209), Chicago.
- Mikulincer, M., Florian, V., Tolmacz, R., (1990): "Attachment styles and fear of personal death: A case study of affect regulation." *Journal of Personality and Social Psychology* 58, 273-280.
- Mivake, K., Chen, S., CAMPOS, J.J., (1985): "Infant temperament, mother's mode of interaction and attachment in Japan." In I. Bretherton eta E. Waters (eds) *Growing Points of Attachment :Theory and Research*. Monographs of the Society for Research in Child Development 50, (1-2 serial nº 209), Chicago.
- Owen, M.T., Easterbrooks, M.A., Chase-Landsdale, L., Goldberg, W., (1984): "The relation between maternal employment status and the stability of attachments to mother and father." *Child Development* 55, 1894-1901.
- Parkes, C.M., (1972): *Bereavement: Studies of grief in adult life*. International Universities Press. New York.
- Pierrehumbert, B., (ed) (1992): *L'accueil du jeune enfant: Politiques et recherches dans les différents pays*. E.S.F. Paris.
- Radke-Yarrow, M., Cummings, E.M., Kuszynski, L., Chapman, M., (1985): "Patterns of attachment in two and three-year-olds in normal families and families with parental depression." *Child Development* 56, 884-893.
- Sagi, A., (1990): "Attachment theory and research from a cross-cultural perspective." *Human Development* 33, 10-22.

- Sagi, A., Lamb, M.E., Lewkowicz, K., Shoham, R., Duir, R., Estes, D., (1985): "Security of infant-mother-father-metapelet attachments among Kibbutz-reared israeli children." In I. Bretherton eta E. Waters (eds) *Growing Points of Attachment: Theory and Research*. Monographs of the Society for Research in Child Development 50, (1-2 serial nº 209). Chicago.
- Shaver, N. eta Hazan, P., (1988): "A biased overview of the study of love." *Journal of Social and Personality Relationships* 5, 473-501.
- Van Ijzendoorn, M. eta Kroonenberg, P., (1988): "Cross-cultural patterns of attachment: A meta-analysis of the Strange Situation." *Child Development* 59, 147-156.
- Vaughn, B., Deane, K., Waters, E., (1985): "The impact of out-home care on child-mother attachment quality: Another look at some enduring questions." In I. Bretherton eta E. Waters (eds) *Growing Points of Attachment :Theory and Research*, Monographs of the Society for Research in Child Development 50, (1-2 serial nº 209). Chicago.
- Waters, E. & Deane, K.E., (1985): "Defining and assessing individual differences in attachment relationships: Q methodology and the organization of behavior in infancy and early childhood." In I. Bretherton eta E. Waters (eds) *Growing Points of Attachment :Theory and Research*, Monographs of the Society for Research in Child Development 50, (1-2 serial nº 209). Chicago.
- Weiss, R., (1991): "The attachment bond in childhood and adulthood." In C.M. Parkes, J. Stevenson-Hinde eta P.Marris (eds) *Attachment across the life cycle*. Routledge. London.
- Weiss, R.S., (1977): *Marital separation*. Basic Books. New York.
- Yarnoz Yaben, S., (1988): *Interrelación entre la percepción de los padres, la percepción de Sí mismo y el comportamiento afectivo: un estudio empírico*, Publikau gabeko tesi doktoral. Psikologi Fakultatea. Donostia.
- Yarnoz Yaben, S., (1992): "La teoría del apego en la evaluación de las relaciones afectivas. Un enfoque sociocognitivo." *Boletín de Psicología* 36, 85-101.